

Egungo Euskararen Hiztegia



[bertsioa: 2024-01-09]

ñabar izond adkor nabarra.

Perkalezko soineko **ñabar** batez jantziriko emakume lodi adineko bat. **Jose Morales**
Haien begiradak, haien aurpegiak, haien traje dotore, **ñabar** eta koloredunak. **Felipe Juaristi**
Objektu **ñabar** eta iletsu bat hurbildu zitzaion, zalantzati. **Monika Etxebarria**
Halakoa izaten da erien bistan ageri diren haluzinazio **ñabar** eta engainagarrien kasua. **Xabier Kintana**

ñabararazi, ñabararaz, ñabararazten du ad ñabartzera behartu.

Baina so egiozue zuhaitz-hosto bati, ikusi haren zain apetsuak, itzalak eta eguzkiak **ñabararaziriko** tonuak. **Juan Garzia**

nabardura ik ñabardura.

ñabarduratsu izond ñabarduraz betea.

Ñabardurak eta iradokizunak zentsurapean jartzen dituen hori berori da, izan ere, berari dagokion auzi batean, iradokizun egilerik **ñabarduratsuen** eta setatiena. **Andres Urrutia**

ñabarduratxo iz

Eta **ñabarduratxo** honekin gainera: Oñati aldean, "yaka" ez baina, "fraka" esaten zutela. **Pello Zabala**
Hara hor ba, uztaileko maparen **ñabarduratxoak**. **Pello Zabala**
Nolanahi ere, **ñabarduratxo** hor dago seinalatuta. **Pello Zabala**

ñabardurazale izond ñabarduren zalea dena.

Ez zen **ñabardurazalea**, baina haien dohaina miresgarria zitzaion, eta itxuraz maltzurkeriarik gabeko baina funtsean hain inozenteak ez ziren errima xume haietarik batzuen mamia ulertu nahiko zukeen. **Elena Touyarou**

ñabartasun iz ñabarra denaren nolakotasuna.

Hitz-lau arruntetik neurtitz bereziraingo gradu guztiak aurki baitaitezke obran, **ñabartasun** hori ere nolabait gordetzen ahalegindu gara. **Juan Garzia**

nabartu, nabar(tu), nabartzen 1 da/du ad nabar bihurtu.

Ordurako kolore eztieta **nabartua** zen jendetzaren artean igaro eta txilin-hots alaiko musikatarara joan ziren. **Irene Aldasoro**
Kolore anitzez **nabarturiko** irudiek. **Elizen arteko biblia**
Kale janzkeran, emakume asko eta asko, hamaika koloretako guardasolak eskutan zeramatatzelarik; eta hondar gogor eta bustiko alderdian plaia **nabartuz**, alfer itxuran denak: gizasemeak eta andereak, umeak eta inudeak. **Txillardegi**
Ezerosotasuna biziki areagotzen da kopuruz duen indarra gehitu eta kultur egitura **nabartu** egiten duenean atzerriko jendearen sarrerak. **Iñaki Mendiguren**

2 ilundu-edo.

Ekiak soa **nabartzen** zion. **Itxaro Borda**
Arratsaldea **nabartzen** ari zela, gizonak agertu ziren. **Juan Garzia**
Zuzi bat ikusten zen kaian jadanik **nabartzen** ari zen gauean. **Joseba Sarrionandia**
Igeldo ostean ezkatutu zaharra ez den eguzkiak urdin aratz argitzen du itsasaldean ostertza, eta, hondo klaro horren kontra, badia inguratzen duten molkoak arre **nabartuz** doaz ezari-ezarian kontrargitan. **Iñaki Iñurrieta**

3 (era burutua izenondo gisa)

Fonetikak erakusten zizkigun eboluzio luze eta zehatzak ez nituen aise segitzen, nahiago nituen sintaxiaren konplikazio **nabartuak**. **Piarres Aintziart**

ñak

1 ñak-ñak-ñak murtxikatzaren onomatopeia.

Dena da laua hemen, dena behar da idatzi, metaforizatu, letren iragazitik igaroarazi, odolik irtengo ez den arren murtxikatu **ñak ñak ñak**. **Eider Rodriguez**

ñaka 1 iz ñakua.

Falta zuen Lafittek bertzorduko **ñaka** hura, eta Martiarenak betiko joko abil hura, baina hain ziren xixatuak Inchauspe horrekini! **Herria**

naka-naka adlag irenstearen onomatopeia. ik ñaka-ñaka.

Ardiki peza erraldoia **naka-naka** irensteari ekin nion, deus ez bailitzan, haurrak triste jarraitzen zuen bitartean. **Itxaro Borda**

Gasna, **naka-naka** irenstea, edozein sukalde ilunetan, lur azaleko nomada guztiekin, ahataraka haurridetzen naiz. **Itxaro Borda**
Ornatzen baldin baduzu haatik, gure ezkontza bereziaren **naka-naka** klikatzeko, ohea prest daukat. **Itxaro Borda**

ñakaka adlag

Ez da nehor hemen xanpaka eta **ñakaka** ari. **Herria**

ñakako iz ñakua.

Orduan Rene Dermit, arras balios, lotu da gogotik, Reteguik ere **ñakako** batzu egiten zituela eta sarea zaintzen. **Herria**

ñaku iz pilota jokaldi mota bat.

Bi paretak, gantxoak, **ñakuak**; guztira 14 tanto erdietsi zituen Tricioko maisuak. **Berria - Kirola**

ñame iz tropiko arteko lurraldeetako belar-landarea, batataren antzeko tuberkuloak ematen dituenena(*Dioscorea batatas*).

-Mrs. Merivale, urteak dira hain patata gozorik jaten ez nuela. **Ñame** -zaporea dute. **Lopez de Arana**

ñañar 1 izond txikia eta kaskarra. (pertsonez)

Ñañarra zen eta hankak ere izugarri ttikiak zituen, botoitxo askoko bota txiki beltzak jantzita. **Fernando Rey**

Baziren gure ingurua festa-hondatzaile **ñañar** batzuk, besoak zerura luzatuz lurrera belauniko erortzen ziren bitartean harengatik zigortuko gintuztela esaten zutenak.

Joxan Elozegi

Inolako arretarik jarri gabe begiratu nion Lisettari Croceren liburuak uzten zizkion konde **ñañar** hari. Hi behintzat ez haiz **ñañar** koipetsu ile beltz kizkurdun horietakoa, gauero ileari *bay-rum* ematen diona gainera. **Fernando Rey**

2 (gauzez)

Muga maleta txiki baten barnean pasatu zuela kontatzen dio edonori, eta baliteke egia izatea, askoz gehiago ez baitu betetzen bere gorputz **ñañarrak** oraindik ere. **Hasier Etxeberria**

Liburuko irakasle alu hori ez zen zehatz-mehatz nik ezagututako inor, baina, bai itxura **ñañarrean** bai izaera zitalean, txikitako irakasle jakin bat izan nuen inspirazio-iturri, Txanpi ezizeneko kakanarru alu bat, Periko ez bezala egiazki gorrotatzera iritsi nintzena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

ñañarro izond ñañarra.

"Gameboyko **ñañarro** horren kлона ematen din", egin du neskak bere kolkorako. **Patxi Iturritegi**

ñandu iz Hego Amerikako zabaldietako hegazti lasterkaria, ostrukaren antzekoa, lumadi griskarakoa, hiru behatzeko oinak dituenena (*Rhea americana*).

Ilargi-gaua zen; buelta bat ematera irten, eta han topatu nuen, **ñandu** bat begira zeukala. **Juan Garzia**

ñaño izond adkor1 nanoa.

Artzain ergel **ñaño** bat han zen lo kuluxka. **Xabier Olarra**

Zeharo gogaiturik, egongelatik irten eta nola hala ematen nuen denbora: batzuetan karrajutik paseoan, nesken geletako poster horterak aztertuz; beste batzuetan neure hankaz irekitako balkoian, alboko txakur **ñañoarekin** eztabaidan. **Jon Arretxe**

Zer dauka kalboso koipetsu eta **ñaño** horrek nik ez daukadana? **Jon Arretxe**

Orduan behintzat kursiak irudituz zitzaizkidan erabat, erromantizismo melenga, belaska eta **ñaño** batez eginak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Vaudeville itxurako filmean, yogi **ñaño** bat jipoitzen dute Quebec-en whisky truk. **Iñaki Arranz**

Ondo asko dakigu esperantza, letra handi eta larriz idatzita ere, hitz pobrea dela, **ñaño** samarra akaso. **Berria - Harian**

2 (izen gisa)

Potoloa koipezto hutsa da; **ñañoak** badauka grazia, baina oso itsusia da, eta kankailu ixila. **Jon Arretxe**

Baina orduan beste izaera bat behar zuen, eta ez guk jarri diogun **ñaño** antzeko hura. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ispilu ilunean, alabaina, nire irudiaren isla baizik ez zen, **ñaño**, ttar eta zimurduretan kizkurtua. **Aingeru Epaltza**

Giroa horrela berotu ondoren, esertzera joan da **ñañoa**. **Xabier Olarra**

Eta janzkera dotore, eta printzesa maitemindu, eta ezkutari konde, eta **ñaño** barregarri. **Patxi Ezkiaga**

Unai Iturriagak eta Fedi Paiak saio polita eskeini zuten, batto Edurne zuriarekin maitemindua zen **ñañoaren** rolan, sagar pozoindua jan eta lo zela, Fredi printze urdinarekin ukan elkarrizketan. **Herria**

ñañokeria iz

Igande arratsalde batean Aloñaren lantokiko lagunak etorri zitzaizkigun etxera bisitan, emakumezko lankideak zehatzago esanda, Aloña eta umea ikustera eta halakoetan esaten diren **ñañokeriak** esatera. Gainera, igual **ñañokeri** bat irudituko zaizu hola esanda baiño, jendea barrutik ere ezautzen duzu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

ñañotu, ñaño(tu), ñañotzen dadu ad ñaño bihurtu.

Ñañoturiko izarra aitakia beti besteri botatzeko joera izaten du, neroni buru naizela. **Andoni Egaña**

napur 1 iz ipar ñapurra, ahozuria.

Gora Lapurdi eta Ibaialde, gure agiatnza hobereenek lagunt ditzatela Angeluar **napur** horiek. **Herria**

2 (izenondo gisa) irud/hed

Udaberri hastapenetako apirila maitagarrien argitasunaren apurra golkoa inarosten zidan, bide **napurretarik** nindoala, haize kontra eta hezurretaraino txipatua: egia erran

Bardeetako eki errautsekin batera, mortu gorrailetara ohituago nintzen. **Itxaro Borda**

ñapurkeria iz litxarrerria.

Badakite laster hurbilduko dela beren etxetik Jexux Haurra edo Olentzero, bat ala bertzea, jostailuz eta **ñapurkeriz** gainditua. **Herria**
Eta berrikitan ikasi dudan hitza, gormandiza delakoaren orde, **ñapurkeria**, arras gustukoa zait. **Piarres Aintziart**

ñapurki adlag litxarreriaz.

Hainbat **ñapurki** lotu zaizkio Pariseri non Patrick Devedjian barne ministro ordeak erran baitu: "Frantzia departamendua erakunde indartsuena da estatuaren ondok".
Herria

ñapurtar iz

Etxahun Barkoxek, Axularrek edota Etxepare mirikuak bezala, andereñoek, txoriñoek, zure begi ñirñirrek, Baionako barraraino laño dauden itsasoek eta gainerako **ñapurtarrek** ez zuten España kañi hau merezi. **Iñigo Aranbarri**

ñarñarkari izond

Harri nabarra, adreilu gorria, errotulu gorri eta berdeekiko asfalto **ñarñarkaria**, estolda gaineko paper-puskak; guztia haren inguruan biraka zebilen, emeki-emeki, lainoan murgilduta. **Lopez de Arana**

ñarro 1 izond tamaina txikikoa.

Gure lagun **ñarroaren** seriotasunetik eta ikasteko zaletasunetik zerbait kutsatuko zitzaiolako mentura zuen, nonbait. Agenda ttar bat, mukizapia, ezpainetako barra eta kartera tiki baina itxuraz bete atera zituen, hurrenez hurren, laruzko zaku **ñarrotik**. **Aingeru Epaltza**
Kriseiluko argi dardaratiak errainu **ñarroak** sortu zituen haren begietan. **Anjel Lertxundi**
Begi **ñarro** horiek halako bi egin ziren. **Aingeru Epaltza**

2 (izen gisa)

Zer zela eta jarri nion halako ezizen hanpatua lurretik bi habete ere altxatuko ez zen **ñarro** bati? **Alberto Ladron Arana**

ñarrotu, ñarro(tu), ñarrotzen 1 da/du ad begiez mintzatuz, erdi itxi, bildu. ik txilotu.

-Nor da? -esan zuen gizonak, ilunpetan begiak **ñarrotzen** zituela. **Irene Aldasoro**
-Zer gertatzen da? -esan nion, begiak **ñarrotuz**. **Anjel Lertxundi**
Begiak **ñarrotu** nituen, gehiago bistatu nahirik. **Aingeru Epaltza**
Aurka, begiak **ñarrotuz**, ohitu naiz. **Koldo Izagirre**
Narrotu du ezkerreko begia, betazalak bilduz. **Koldo Izagirre**
-Beste batzuek betazalak **ñarrotu** dituzte eta irri egiteko gogo izugarriari eusten diotela dirudi. **Jon Alonso**

2 (era burutua izenondo gisa)

Orduan, botila-koloreko bi begi berde **ñarrotu** topatu nituen bekain keinukari baten azpitik niri begira. **Irene Aldasoro**

ñegartti izond adkor negartia.

Han entzuten da txantxangorriaren kanta **ñegartti** ezaguna. **Pello Zabala**

nimino ik ñimiño.

ñimiñodun izlag ñimiñoko.

Pergaminozkoak ziren, edota antzeko larrutxek egindakoak, eta haietako bakoitzak Senaren eskuin-ibaiertzaren ikuspegia ageri zuen margotuta, leiho **ñimiñodun** eraikin eta guzti. **Mirentxu Larrañaga**

ñimiñokeria iz huskeria.

Carbayok aztertzen ninduen, isilik, esaten uzten zidan, partez asperturik bailegoen, partez nire **ñimiñokeriak**, nire xelebrequeriak libretituko bailuen. **Jon Alonso**

ñimiñotu, ñimiño(tu), ñimiñotzen da/du ad ñimiño edo ñimiñoago bihurtu.

Funtzionario hark hain zuen bizar duina, hain luzea, hain zilarrezkoa, non aurpegia ondorioz **ñimiñotu**, ezeztatu egiten zitzaion, bizarra aurpegitik hazi beharrean aurpegia bizarretik sortzen balitzaio bezala. **Matías Múgica**
Kanutoak begiak ixteraino **ñimiñotu** zizkion. **Unai Iturriaga**

nini 1 iz ume txikia. ik ñiñi.

Ez dezaten pentsa etxetik kanpo moldatzeko gauza ez den **nini** errukarria denik. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Haur kokortzen hasia eta **nini** sortu berria haiekin doaz. **Berria - Euskal Herria**
Jatorritik bidaiari lotua den jaialdi honek aurten amaren tripan dagoen **ninia** edo Egiptoko lurrek gorde altxorrak zintzilatuak dituzte. **Berria - Kultura**
Ibai bazterrean jo zuten hogeai eguneko **ninia** eramanez. **Itxaro Borda**
-Txibatoa? -Aloñak, **ninia** tititik zintzilak-. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Aldi hartan bizia galdu zuena 22 hilabeteko **nini** txiki bat izan zela, zorigaitzoko bonba baten ondoan pasatzeagatik. **Pello Salaburu**

Baldin eta buruko mina bazuen, edota oinetako arkuak ziztaka bazituen, kekuxa aritzen zen, urrikalgarri, **nini** bat antzo. Mirentxu Larrañaga

Nini baten moduan tratatzen zuen. Mirentxu Larrañaga

nini baten ipurdia bezain soila nuela kokotsaldea eta ez nuela bizarra egiteko premiariak. Mirentxu Larrañaga

Begiratu zuelarik, ikusi zuen bere adineko neska bat, "coca-cola" tiserata zikin luze bat gona gisa, **nini** biluzi bat altxoan. Ramuntxo Etxeberri

2 (hitz elkartuetan)

Nere esku lodiak olioz bustitzen nituen eta zure **nini** gorputz ttipia artoski eta emeki manipulatzten nuen. Ramuntxo Etxeberri

3 begi-ninia.

Begiek ez zuten ez bizitasunik ez distirarik, eta **nini** gabeak ziruditen. Koro Navarro

Betazalek **niniaren** erdia estaltzen zioten. Unai Iturriaga

Saloira bildutako emakumeak [...] larru gorri jarri ziren, beren gorputz gorritzatuak denon begiei, eta batez ere errege-ordearen **nini** zuriei eskainiz. Felipe Juaristi

Ez naiz **niniak** mintzen edo ikusmena zauritzen duten irudiez mintzo. Xabier Amuriza

Niniak ere katuarenak zituen, eta sudurpean ageri zitzaizkion ile apurrek ere katua zekarkidaten gogora. Edorta Jimenez

4 begi-nini

Argi gutxi denean zabaldu egiten da **begi-ninia**, argi gehiago sar dadin. Josu Zabaleta

Emakumearen **begi-nini** beltzak lasai zeuden. Ibon Uribarri

Medikuaren linternetxoak **begi-nini** dilatatu batzuk argitu zituen. Joxemari Urteaga

Begi-ninietako hondo-hondotik begiratzen zidan gogortasun neurritz gaineke batez. Anjel Lertxundi

Ispilu aurrean eseri zen bere **begi-nini** zabaldu beltzei so. Lopez de Arana

Lehen gutuneko azken esaldi hura **begi nini** dilatatuetan irakurri zion, baina espresio goxo eta irribarresua erakutsi zuen Macarenaren aurpegiak. Joxemari Urteaga

Begi-nini gardenen inguruan argizko uztai horixka zeukan. Juan Kruz Igerabide

5 -en begiko nini

Gramo bat azukre pisatu nuen, platinozko arragoan (gure **begiko ninia** zen huraxe) su emateko. Juan Garzia

Nire poltsikoa gizentzera etorriko da jabe koleratuak bere **begiko niniaren** truke ordainduko duenaren laurdena. Aingeru Epaltza

6

Debaldetan pasa ditut hatz-**niniak** paretan. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begi nini (17); **nini beltz beltz** (3)

begi ninia (20); **begi ninia itxiago** (3); **begiko ninia** (3)

begi niniak (23)

begi ninian (5)

begi niniaren (7)

begi niniek (5)

begi ninien (5)

begi ninietako (3)

begi ninietan (15)

ñir-ñir (orobat ñirñir g.er.) 1 adlag ñirñirka.

la ilundua zuen, eta Branfordeko argiak **ñir-ñir** ari ziren. Xabier Olarra

Urrezko ezproiak bota orpoetan; diamantez jositako gandorra kaskoan **ñir-ñir**. Karlos Zabala

Perrette bat-batean altxatu zen, begiak **ñir-ñir**: [...]. Jon Muñoz

Ikusgarri margotutako etxe zurezkoak, plaza baten inguruan pilaturik, eta, goian gailen, katedralaren kanpandorre garaia, gurutze urreztatua **ñir-ñir** eguzkipean. Karlos Zabala

Handitzen ari zen, pozik, eguzkitan **ñir-ñir**, dena bikain zebilelakoan, ohitura baketsuko jendea sekula ez zela hain ederki gizendu pentsatzen zuela. Karlos Zabala

Kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek **ñir-ñir**, eta mutxurdinek mar-mar. Unai Iturriaga

2 ñir-ñir egin

Nikelezko zerbaitek **ñir-ñir egin** zuen Baldwinen eskuan. Lopez de Arana

Eta milaka eta milaka ziren haren lepoan, haren beso eta eskuetan, haren gerrian, haren oinetan **ñir-ñir egiten** zuten diamanteak. Karlos Zabala

Elur-maluten ertzek **ñir-ñir egiten** zuten farolen ondotik pasatzean. Lopez de Arana

Ñir-ñir egin zuten Peretteren begiek. Jon Muñoz

Begi ilunek **ñir-ñir zegoiten**, han beheko itsaso distiratsuak bezala. Anjel Lertxundi

Begiekin **ñirñir** egiten ikusi nuen, baina ez dakit zer sentitu zuen. Jon Muñoz

Ez nintzen guti harritu, tupustez, Ximurraren auto urdineko keinukariek **ñir-ñir egitean** bide ondoko aparkaleku baterat. Aingeru Epaltza

Aurre-postuetako suek **ñir-ñir egiten** zuten bizi-bizi. Karlos Zabala

ñirñir (orobat ñir-ñir g.er.) 1 iz dirdira, distira.

Eri ikusezin batzuk Mikelen masailean pausatu dira, **ñirñir** bat bezain fereka llaburrean. Aingeru Epaltza

Ñirñir batek postarantz desbiderarazten dizkio begiak: mezuak dauzka. Antton Olano

Ellen besaulki malgu batean eserita zegoen, gela luze baten bukaera aldean, non solasen txintxina eta zutargien eta harribitxien **ñirñirra** sumatzen baitziren. Lopez de Arana

Xekearen begi urdinek izarren pareko **ñirñirra** zuten. Fernando Rey

Pattar edontzi txikiak, ardo baso lodiak [...] denak goikoze behera, ipurdia airean, barraren **ñirñirak** haien zurbiltasunean islatzen zirela. Karlos Zabala

Pantailako **ñirñirrak** atzera begiratzera behartu du. Antton Olano

Erosek begien **ñirñirrak** xedatzen eta gezien puntak zorrotzen dituen legez, Anterosek soak desbideratzen ditu eta azkonen garratza kamusten. Juan Garzia

Jaurenearen begietan **ñirñir** bat agertu zen, belusezko bonetaren hegi zabalaren azpitik, izarren **ñirñir** hotzak zirrara eragin zidan. Elena Touyaru

Ñirñir metaliko bat aterarazi dio goizeko eguzkiak ezkutaleku batean aparkatutako Toyota zuriari. Javi Cillero

Aintzira lokartuak bezalakoak ziren; beiraren baten **ñirñir** iheskorrak olatu baten zilar distira argitzen zuen haien erdian. Karlos Zabala

Neskak, ordea, han irauten zuen, garrezko **ñirñir** bat begietan, dendaren fatxadan jarritako kale argien errenkadaren azpian. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Merlenka kaxak, opalo **ñirñirez** beteak. Karlos Zabala

Han ezer ikustekorik ez bazegoen ere, gure hegala bustiaren gaineke argi-**ñirñir** berdea izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Argi **ñir-ñirrak** bakarrik ikusten genituen herrixkan barrena, eta haran osoan zehar beherantz. **Mirentxu Larrañaga**

ñirñirdun *izond* ñirñirra duena.

Hala, bada, Nottingham-eko dukearen konpainian sartu zen, eta tafetai eta damaskozko soinekoak apailatu zitzaizkion, **ñirñirdunak**, zilar-oihalezkoak eta urre-oihalezkoak, begiztadun kortseak eta kalamuzko ileorde kiribil luzezkoak. **Juan Garzia**

ñirñirka *(orobat ñir-ñirka) adlag*

Goian ilargi izoztu eta zahar-zaharra **ñirñirka** ari zen, mendigainak erdizka estalirik. **Fernando Rey**

Esango nuke euria ere egin duela, hori erakusten baitute **ñir-ñirka** ikusten ditudan argi distiren islek. **Pello Salaburu**

ñirñirkari *izond*

Uneoro mudatzen zen mundua, lorez betea, elurrez, argiz, berdez, batzuetan morez, batzuetan kobre-kolore garbiz, beste batzuetan urdinez, eguzkiz, horiz, laranja-kolore **ñirñirkariz** ... **Fernando Rey**

ñirñirtsu *izond*

Zerbait **ñirñirtsua** han joan zen itzulika eguzkipean. **Juan Garzia**

ñirñirtu, ñirñir(tu), ñirñirtzen da/du *ad.*

Lepoko edo bizkarreko oinazeak jasango balitu moduan sorbaldak beheratuta, Joseluren begiek lurreko baldosak zituzten jopuntu, nahiz eta burua geldirik begi-niniek alde batera eta bestera **ñirñirtutako** barreialdiek labezomorroen ehizean aritzearen itxura ematen zioten. **Josu Landa**

ñoki *iz* batez ere irinez, gurinez, esnez eta arrautzez osaturiko orearekin eginiko bola, labean edo ur irakinetan prestatzen dena.

Mendi horren tontorrean badago jendea **ñokiak** eta ravioliak besterik egiten ez duena. **Berria - Kultura**

Kapoiak **ñoki** eta ravioliekin jaten: halaxe irudikatu gintuen XIV. mendeko Giovanni Boccacciok euskaldunok. **Berria - Kultura**

ñoño *izond* txepela.

Han, Hollywoodek, gaur egungo Hollywood **ñoñoak**, eginiko zinemak ez zuen inolako arrakastarik izan. **Berria - Kultura**

ñoñokeria *iz* txepelkeria.

Behin, kanpoko editore batek aitortu zidan asko miresten zuela samurtasuna nola tratatuta zegoen nire istorioetan eta horrek asko poztu ninduen, bihotza errebindikatzek ez baitu zertan **ñoñokeria** ekarri behar. **Ana Urkiza**

ñoñostiar *iz* adkor

Noñostia, **ñoñostiarrak** Donostia eta donostiarren desitxuraketa esanguratsua, aski zabaldua. **Iñaki Arranz**

Donostiako **ñoñostiarren** ibilerak eta harat-honatak. **Joan Mari Irigoien**

Kromagnon goitizena jarri zian **ñoñostiar** grazioso alu hura. **Jokin Muñoz**

ñoõ *(orobat ñooo) interj* koño-ren leungarria.

Latza, **ñoõ**, ostias. **Karlos Linazasoro**

Ez dakit nik, **ñoõõ**. **Karlos Linazasoro**

ñu *iz* afrikar sabanako antilope handia, ile arreakoa, gorputza, isatsa eta hankak zaldiaren antzekoak dituena(*Connochaetes sp.* eta *Gorgon sp.*).

Behin Kewko ehiztari batek begiztatu zuen urrutira bakean zen **ñua**. **Xabier Olarra**

Iruditzen zitzaidan atsegin izango zuela Afrikako sabanan denboraldi bat egitea eta aholkuak ematea hango elefante-saldoak eta harrapakin diren animaliak -antilopeak eta **ñuak** - kudeatzeko. **Xabier Olarra**

Nekoraren begiak **ñu** hilak baino hilago zeuden. **Unai Elorriaga**

Antzeko galera gertatzeaz da Amazonasko eta Mekongeko siluruekin, Gangesko izurdeekin eta Mara ibaiko **ñu** urdinekin. **Berria - Gaiak**

Coventry edo Birmingham-eko fundizioetan kutxa beteka moztzen ziren ikurrak; alde batean Victoria gozakaizaren burua -regina et emperatrix-, eta bestean **ñua** edo ibisa jauzika. **Oskar Arana**